

# Euskal esaera batzuk

## 1. SARRERA

Esaera edo atzotitzak erri guztietan egoten dira. Euskal-errian ere badaude. Baina zer dira esaerak? Esakuntza motzak pentsamendu sakon batekin, errikoiak, egilearen izengabeak, eta askok ezagutzen dituenak. Definizio au zeatza ez izanik ere, zer diranaren antza artzeko baliagarria da.

Esaerak era askotakoak daude. Gaiari begiratzuz banatu daitezke. Gizonaren bizitzari buruzkoak edo gizonaren ekintzei lotuak daude geienetan. Ekintza auek gauzenganakoa izan daitezke, edo beste pertsona batzueganakoak. Eta gauzak eta pertsonen ekintzak asko diranez, asko izan ditezke, esaera motak.

Esaeretan erabiltzen diran irudi eta konparaketak, batzuetan abstrakto samarrak izaten dira. Adibidez: 'bakoitzari berea, Jainkoaren legea.' Beste batzuetan izaditik artzen dira irudiak. Landareengandik, abereengandik, denporarengandik, jaiengandik eta beste diran izaki askorengandik. 'Arrain aundiak jaten ditu txikiak' esaterako. Edo 'A zer pareka karakola ta bareka'.

Orrelako banaketak egin daitezke baina emen alfabetoz jarrita doaz, jaso dituenak jarri dituen bezela. Euskaldunen izakera ere adierazten da esaeretan, eta erri bakoitzean norbaitek jasoko balitu onelako esaera zerrendak, ez litzake kaltegarri izango erri kulturarentzat. Ez bakarrik esaerak. Baita esakerak

ere A. Mokoroak jaso dituen bezela. Adibidez 1983-X-24an onelakoa entzun nion Amezketako emakume bati: 'txurian beltza ez jarri', «no estás en deuda» esateko. Gaur sarritan esaten dugu eta entzun ere: 'zenbaki gorritan nago', numero gorritan nago', erderatik kalko uts bat eginez. Baina beste aipatutako ori askoz jatorrago da euskeraz: 'txurian beltza jarrita nago' esate baterako.

### **Esaera auek**

Martin Ugartek jasoak dira, Legazpian, emen agertzen diran esaerak. Berak izen ori jarri zien eta iztegian ere agertzen da. Izen orrekin gelditzen da. Batzuk an, or, emen entzunak ditu. Beste batzuk idatzietan irakurriak edo telebistan entzuna ere baten bat. Dana dala bai batzuk eta bai besteak interesgarriak dira. Eta leengo aria jarraitzen zutenak. Adibidez, 1596an «Refranes y sentencias» liburuan agertzen diran batzuk, oraindino ezagutzen dira, zerrendan onek adierazten duen bezela. 131garrenean liburu orrek onela dakar bat: 'andra ederra etsean gerra'. Eta emen: 'andre ederra, etxerako gerra'. Edo beste au: 'atean uso, etxean otso, ala bizikidea gaiso'. Eta emen: 'atean uso, etxean otso'. Luzatu daitezke konparaketak, baina irakurri itzazu, euskaldun ezezagun batzuen pentsakerak, esakuntza moztetan sartuak, gaurko bizitzarako ere baliagarriak direlako.

*J. M. Etxebarria*

## **2. ESAERAK**

### **2.1 Entzunak**

Abarrik badago zurriñean,  
pertzeta gar-gar su-gaiñean.

Adiñeko mirabe prestu,  
edozertarako gertu.

Agure makurtua,  
neketan urtua.

Aita biltzailleari,  
semea zabaldari.

Aita nolako,  
semea alako.

Ajolik gabeak,  
etxez-etxeke mirabeak.

Akerrak baratzen,  
auzokoak dantzan.

Alaba bakar-azia,  
etxerako gerra bizia.

Alako eztaietan,  
alako zopak.

Aldeko zakurrak buztana luze;  
bera dan gisara besteak uste.

Aldibengo negarra,  
ogia bezain bearra.

Aldiz-aldiz,  
zapataria zaldiz.

Ama itzontzi,  
alaba putzontzi.

Amoratzea;  
gazteentzat loratzea,  
zaarrentzat zoratzea.

Andre ederra,  
etxerako gerra.

Antxume bakarti,  
tegian negarti.

Antzar elbarria,  
arrantz-jale garbia.

Ao zabal luze,  
logale edo gose.

Apaizaren lapikoa,  
txikia baiña koipatsua.

Apiril bustia,  
esku biaz ogia.

Arbiloreko;  
aal ba'da geroko.

Ardi-antzu mengela,  
artalderako pardela.

Ardia zinzarri jole barrenean;  
atarian elurra biaramonean.

Ari bikutza,  
etetzen gaitza.

Ari megatx,  
eten-errax.

Arrain aundiak,  
jaten ditu txikiak.

Arrantza gure astoak,  
erantzun auzokoak.

Arrantzaleen esakun:  
Goizean senardun,  
arratsean alargun.

Aseran lagun asko,  
luzarorako kako.

Astoak on dik artoa,  
idiak arto-lastoa.

Astoaren aorako ez eztia,  
baiña bai belar bustia.

Asto joan da mando etorri.

Asto zaarrak indarra urri;  
indarra urri-ta putza sarri.

Atean uso;  
etxean otso.

Aurak ikasia,  
etxean ikusia.

Aurrerazka ezean,  
atzerazka bear.

Auzo ona,  
lagun ona.

Axeri zaarra beti goiztar,  
goiztar eta oiñak azkar.

Aza-burua loretu?  
Zerri-puxkak urritu.

Azaroko eguna,  
argitzeaz illuna.

Azaroa bero,  
negua gero.

Azaroa otz,  
negua motz.

Azia katilluka,  
uzta imiñaka.

Azkar eta ongi usoak egan.

Azkor datorrena,  
senidetan gazteena.

Azkurririk jan gabeko zerria,  
gailu-uts erdia.

Bagoazke oatzera,  
goizean jeikiko ardatzera.  
Gaudean oatzean,  
astia degu arratsean.

Bakoitza bere zoroak darabil.  
Bakoitzak bere astoari arre.  
Bakoitzak bere Santuari  
erregu.

Bakoitzari berea,  
Jainkoaren legea.

Baleoko errotan iriñik ez,  
agiñak amostu beldurrik ez.

Baleo ta balitza,  
elkarrekin dabilta.

Barrikaren arabera uztaiak.

Basa-porruak loratzera,  
artantzuak larratzera.

Batekoz-beste,  
kukua euri eske.

Bearra eragille aundi.

Begi itsuak negarrik ez;  
ao itxira elbirik ez.

Belar gaiztoak zazpi aien,  
bat-bestearen gailen.

Beroan buzkantza,  
beroan ezkontza.

Betiko itokiñak arria ere  
zulatu.

Bizitza beti aker,  
zuzen ez danean oker.

Bizitzaren ardatzean,  
gazi-gezak gelatzean.

Bolo-bolo dabillena,  
etxetik irtena.

Burgifñaren etxean  
zotza burduntzi.

Bearrak bakartu,  
bearrak elkartu.

Berandu jeikitzen bazera,  
egunaz lanak atzera.

Barrutiko zaldiek zinzarri  
ixilla,  
geroz-eta lodiago elurraren  
maila.

Txapela buruan,  
da ibilli munduan.

Txiki banintzan,  
aundi banintzan;  
Maiatzean buru nintzan.

Txikien naaste,  
aundien irabazle.

Txintxoaren sakelak bi zulo.

Txori bakoitzak kabia ez-  
berdin.

Txurrut bat, txurrut bi;  
konturatzeke zilipurdi.

Dabillen arriak goroldiorik ez.

Dagonean bon-bon,  
ez danean egon.

Degunean deguntxo,  
nere gizontxo.

Degunarekin goaz,  
ez genuenekoaz.

Duenak kolkorako,  
ez duenak gerorako.

Etxekoandre aurpegi beltzean  
labesua, ta lexiba etxean.

Etxeko akatsak,  
etxeko gelatzak.

Etxeko herriak auzoan,  
lau bider geituan.

Etxeko gelatzak,  
etxeko ametsak.

Etxeko sua,  
etxeko autsaz estali.

Etxe utsa, gose utsa;  
etxe utsa errita utsa.

Etxe utsa negargarri,  
etxe betea pozkarri.

Egiaz maite deguna,  
aaztuko etzaiguna.

Eguna nagi,  
egiña urre-gorri.

Egurra nolako,  
ezpala alako.

Eguteran gerizak,  
ospelean masustak.

Eguzkia nora,  
zapiak ara.

Eguzkiaren ertzean,  
esnea pertzean;  
da neskea etxean.

Eguzkiaren etzaneraz,  
izarrak ñirñiraz.

Eguzki ta euri,  
Martxo eguraldi.

Ekaitz ostean barealdi.

Eliz-txorien jokaera,  
artoa dagon sapaera.

Elorritxoa lorez dago,  
arto-ereite giro dago.

Elurtea doanean,  
su-egurra oianean.

Emakume bakartia,  
esamesen belakia.

Enadak txiuz,  
udara billuts.

Erle opillari, eztia lillura.

Erle uxatuak eztirik ez.

Errotan txor-txorka,  
bidean laisterka.

Eskalea ogi-zatiaz pozik,  
eman dionak ere ez dauka  
lotsik.

Esnerik ez bada katilluan,  
zerbañt txarra ukulluan.

Ez duena utsaren duin,  
duenak buruko min.

Ez geiegi itz egin,  
nai ez badezu utsegin.

Ezkur urte,  
elur urte.

Ez sinistu Zeru izartsuan,  
ez ere andre negartsuan.

Ezurak zabal,  
okelak argal.

Fedean otz,  
gizakeriz motz.

Furiz laukoan basa-zezena,  
ur dabilkio itauli eztena.

Gaba gabekoentzat,  
eguna egunekoentzat.

Gabaren kolko illunean,  
ontzak ulukaz alegiñean.

Gaizki egiña laister azaldu,  
naiz-ta gaizkiñak ondo estaldu.

Gaizki batek ezagun bestea.

Galdera nola,  
erantzuna ala.

Galtza nasaiak aal direnean,  
galtza estuak besterik ezean.

Galtza-zarren sapalda,  
zizelluaren espalda.

Gari ona kutxatik saldu-errez,  
gari zimurra eskeinka ere ez.

Gari-zorro ona etxeratzeko,  
dorre-txoriei ez deitu lagun-  
tzeko.

Gatzean-gatzean,  
zeziña eltzean.

Gaueko orduetan kantuz,  
biaramonean lantuz.

Gaurik luzeenak ere egun-  
sentian amaia.

Gaurko egunak emandu berea,  
biarokoak balekar ohea...

Geiegizko itz-jarioa,  
ur-bitsetan dijoa.

Geroa,  
alperraren leloa.

Gerrikoa narras dago;  
galtzak narrasago.

Gezurra esan nuen Getarian,  
nere aurretik atarian.

Gezurak egia labaindu,  
egiak gezurra amildu.

Gezurak zaiñak labur.

Gezurtiak zer du merezi?  
Egia esatean ez siñetsi.

Gizona dagonean miñak artu-  
rik,  
edan beza ardo-zaarra opo-  
rretik.

Goiz edo berandu,  
munduak azkena bear du.

Goizeko laiñoa errotari,  
arratseko gorria pelotari.

Goizeko oskorri,  
arratserako iturri.

Goldarian asarrea,  
itaurlarian bizkarrera.

Gose bada, ez bada,  
astoak arrantza baldarra.

Gurdia zenbatez ariñago,  
ardatzak kirrinka miñago.

Itxu-errian begi-bakarra al-  
kate.

Igesi dijoana bero,  
joanak itzulera gero.

Ik bildu,  
nik zabaldu;  
utsean ez diagu denborik  
galdu.

Ilbeltzeko otzak,  
leizera daramatz artzak.

Illea luze, zentzua labur.

Intxaurra duenak jateko,  
izango arria austeko.

Iñoren zer esangoak,  
lotzen dizkigu zankoak.

Iñor ez dan etxean,  
su-makurra gelatzean.

Iturriko ur garbia,  
utsa delarik aundia.

Itz-ontzi,  
uts-ontzi.

Ixil-eziñeko mingaiña,  
belarrietarako samiña.

Izotz gaiñeko laiñoa,  
elurraren keiñua.

Izuberak begiak larri,  
ausartak ere antzera sarri.

(Izardituaren saria,  
eguneroko ogia.

Itxas-egaleko aizea,  
ura bera duin ezea.)

Jai eguna lanerako?  
galtza zarrak betirako.

Jai egun da lanera?  
alea jalgi ta lastoa baera.

Jakituna sarritan ixilik,  
ez jakiña ixildu eziñik.

Jokua ez dek errenta,  
obe oilloa erreta.

Jokuan norbait irabazle,  
geienak galtzaille.

Joku bezperan erronka,  
biaramonean errenka.

Jokurik onena,  
gutxien dabiliena.

Joku-zale bazerate,  
laister eskean atez-ate.

Judasen mandioan,  
tratalariak pilloan.

Kandelario;  
elurra dario.  
San Blasek ere,  
lagunduko dio.

Kandelario otz,  
neguaren biotz.

Kandelario bero,  
negua Pazkoz gero.

Katua falta,  
saguak dantza.

Katuak daroen okelea,  
geiago dek berea,  
ta ez irea.

Kilkirra udaran kantari,  
neguan otzak dardari.

Kukua etorri,  
gosea etorri.  
Kukua mututu,  
gosea bukatu.

Kukuak txantxangorria  
iñude;  
eguterak masil bat aiñube.

Lan igesi auzora,  
an ere jatena ez dator aora.

Laneruzkoan baria lez;  
etxeruzkoan balia lez.  
(Bizkai aldekoa)

Lan laisterra,  
lan alperra.

Lau arrosak lau begi;  
katu zaarrak bost begi.

Lau ardik lau buru,  
ta launa anka-urkulu.

Leen ala,  
orain ola;  
gero ez jakin nola.

Leen arro zana,  
emaztean esanetan otsana.

Logale geranean edonun oe.  
Lukainka, luzeago ta obe.

Lurrak damaigu bizitzeko  
jana,  
lurrak azken baten atsedena.

Maiatzeko sagar-lorea,  
utsa baiño obea.

Maillaz-mailla igoaz,  
Santu izatera zoaz.

Mari-Joxepa tronpeta,  
dantza gaitezen tarteka.

Mendian ikazkiñak,  
jateko prest agiñak.

Mendiko ardiak,  
mendian begiak.

Mendiko txoriak,  
mendian egats-biak.

Mingain luzea,  
izjario ezin ase.

Mingaiñak ler egitean,  
barruko miñak ao-bete.

Mokor zabalak,  
neurrira gona-aztalak.



Munduan aberats denak,  
adiskide asko ta onak.

Munduan asko lez,  
zakurra arto-koskorrez.

Munduko berriak aztertzeke  
naikoa;  
eri-etxeke gaixoa,  
ta konbentu itxiko monjatxoa.

Munduko gauzen zori;  
gaur argi,  
biar itzali.

Mundu zoro au badaro,  
zaartzerago-ta zoroago.

Nagian nagia,  
arraskan zaragia.

Nai badezu izan santu,  
frailetzara sartu.

Nai duenak aal du,  
nai ez duenak guzia galdu.

Nai duenak luzaroan bizi;  
oilloekin oera, txoriekin jeiki.

Nai ez badek goseak bizi,  
lan egiñaz zuur etsi.

Negu otzean,  
edonor ardatzean.

Neure begiz ikusia,  
katuan ondoren odolkia.

Nik banetizkik talo bi,  
ta ik zartagikoa;  
burutuko genukek  
ortik onakoa...

Nik loxintxa katuari,  
katuak bere buztanari.

Nola apaizaren kantua,  
ala akolituak erantzua.

Nork nori?  
Zozoak beleari.

Nunbaiteko peria,  
askorentzat aitzakia.

Nun gertatu,  
an ostaru.

Nun gogoa,  
an zankoa.

Nun iriña,  
an opilla.

Nun nor topatuko,  
zenbait beti ezkontzeko.

Ogiaren alboan otasa beltz,  
bere beltzean ere lotsarik ez.

Ogi erre-berria,  
etxerako galgarria.

Oillo-amak,  
bereak ez txito denak.

Oillo asko,  
arto asko;  
kokotx eta lasto.

Oillo beltzak arrautz txuria,  
gezurrak tartean egia.

Oillo gosea kantari,  
nexka gaztea dantzari.

Oillo ibiltari,  
aixeriaren janari.

Oiñak luze, begia luzeago.

Oiñak nolakoak,  
neurrira oiñetakoak.

Oiñezkorik nai ez,  
zaldizkorik topatzen ez.

Onean on dena,  
txarrean txarrena.

Ongi azia dan alaba bakarrak,  
arto-bero usaia zeramak.

Orain amildu, gero altxa;  
olatsu doa mundu beltza.

Oraiñak oraiñari eldu,  
inguruka dagoenak keiñu.

Otsailtxo laburrean,  
kataarrak gau-lapurtean.

Otsailtxo minduan;  
aldiz eguzkitan, aldiz suton-  
doan.

Otsoa bakarrean orruka,  
bi ezkerorik korrika.

Otsoaren ume;  
otsakume.

Paparra zabal-da, oilla-narru;  
uste gabeen aizerik aski badu.

Pertzak ipurdia beltza,  
ori dakiena etxeko gelatza.

Pittin-pittinka,  
aleak kutxatik anka.

Pozaldian irrintzi,  
atsekabeen negarti.

Sabel utsa zorri-toki,  
sabel betea simaurtegi.

San Joan goizeko intzak,  
kentzen ditu gaitzak.

San Pedroz kuku,  
San Martzelez mutu.

Santo Tomasko peria,  
txorixua ta ogia.

Sasiak belarriak sorail,  
onek jasoa aizeak darabil.

Sasiak entzuna,  
bitik bat gezurra.

Santa Katalin garbia,  
gaztain-urte aundia.

Semea etena ta ase,  
alaba jantzia baiña gosea.

Suak sua dakarki,  
sugeak sugekuma noski.

Teillatu bizkarra,  
ura botatzen bitara.

Tipula jan,  
tipula lan.

Topiña gelatzean,  
da esnea pertzean;  
otordua dator ostean.

Tutulu-mutulu mutilla,  
badatorkio maite-miña.

Uler ezak lenengo,  
itz egin urrengo.

Ume ao-bigunak  
ama biren bularrak.

Urak dakarrena,  
urak daramana.

Urdai-azpia osorik,  
etxean ez da goserik.

Urik ezean alperrik errota,  
ikusiaz gero edozein profeta.

Urteak etorri urteak joan;  
urak pillatzen itxasoan.

Urte askotan nai badek bizi;  
oilloekin oera, txoriekin jaiki.

Urte legorreko uzta,  
galbaetzean utsa.

Urte zarra bukatzean,  
sagu-zaarra burduntzian.

Urtez astunduriko oiñak,  
ez dabizkit txori ariñak.

Urrutiko intxaurreak amalau,  
urreratzean lau.

Urrutirago-ta soriago oillar  
kukurrukua.

Usoak bere tegian kurruka,  
andik kanpora izuka.

Ximaurra naasago,  
lurriña kiratsago.

Xoxoak sasia kirkirri,  
eiztaria urrean dirudi.

Zabuaren aldera,  
erortzen da arbola.

Zaietan txintxo, iriñetan zoro,  
oker egiña ikusiko gero.

Zakurrak okela amets.

Zakur zaunkari,  
gutxitan ozkari.

Zanbalantran,  
gaur emen biar an.

Zaragi berrian,  
ardo zaarra neurrian.

Zegoan zegoan,  
txitxak jan zuan.

Zenbat ataka,  
ainbat matraka.

Zenbat ate, ainbat maratilla,  
mutillaren ondoren neskatilla.

Zenbat auzotan,  
odolkiak ordekotan.

Zenbaiten esker guziak,  
gabonetan gerizeak.

Zerk ekarri ark eraman,  
aizeak ekarria aizeak zeraman.

Zerri goseak ezkurra,  
zakur izuak isats makurra.

Zinzarria dunguluz badago,  
urrutirago-ta soriago.

Zerririk ez bada tegian,  
koiperik ez zartagian.

Zinzur estuan pirrinka,  
zinzur nasaiian amilka.

Zorrak zor, lepondoa lodi;  
bada ez bada, mokau goxoak  
sarri.

Zuk ere badituzu utsegiñak,  
bizi-lagunaren berdiñak.

Zura bigunago,  
arra barrurago.

Zurgiñaren etxea zotzez,  
zotzez ere motzez.

Zuurraren kolkoa gose,  
lertu zoriz-eta ezin ase.

## 2.2 IRAKURRIAK

Adiskidea zaarrik,  
albistea berririk.

Antzar elbarria,  
arrautz-jale garbia.

Arantzak ez du ezkurrik,  
ez gaztanberak ezurrik.

Auntza igarota oiñatsak agiri,  
batak dagiana besteak igarri.

A zer pareta,  
karakola ta bareta.

Basa-txitoak basora larra-  
-bide.

Baso ta ibaia auzo,  
au ez duan etxea gaizto.

Batean erori bestean jeiki,  
bitartean ez dabil gaizki.

Beargille alperra, erakusle on.

Bits-ponpilla aize uts.

Dagoena buru-aundi,  
dabillena sabelaundi.

Egazitirik ez ariñago,  
zenbaten burua baiño.

Egun-argitze lausoan,  
urretxindorra kantuan.

Eguzkipean atzerri,  
illobiz aruntz aberri.

Elorria lorez txuri,  
ta ostoa aiña txori.

Elurra bere aroan asegarri,  
aroz at kaltegarri.

Erle-opillari ezta lillura.

Ez baita eremu aldendurik,  
aizea sartu ezin ditekeenik.

Fedean otzago,  
sorginkerian beroago.

Gabak egunari damaio eskua,  
onek ordaiñetan masailla  
beztua.

Galdu errez, idoro gaitz.

Guziok gera jabe geure utsean,  
guztiok zordun ere eriotzaren  
atean.

Illea luze, zentzua motz.

Itzetan eder,  
egiñetan lander.

Kanta berri,  
berri danean kantagarri;  
zaartzean mingarri.

Nere ezurrak nere txokora,  
leen-kidekoen ondora.

Oillo elbarria,  
arrautz-jale garbia.

Orriak soilduaz ez dezu bes-  
terik;  
arantzak txortenean suminki  
zorrotzik.

(A. S. Mitxelenarena da)

Txamarra tintil,  
atorra zirpil.

Ukalondoaz neurtzen iñoren  
begiko zakarrak,  
geureak neurtzean, oztopo  
dagigu zudurrak.

Zekena beti on-gose,  
gosebera izaki, zeken ez-eze.

Zentzunak zurrun,  
aalmenak iztun,  
maite jarioz diraugin.

Zer eman, zer uka,  
biotz zatituaren bi puxka.

Zezena adarretik,  
gazta usaiñetik.

Legazpia, 1983 azaroa

*Martin Ugarte*